



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko martxoaren 27a

38. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00517. Galdera, Europako SEM funtsen urriko datuak gaurkotzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00518. Galdera, Next Generation Europako funtsek Nafarroako BPGan duten inpaktuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-24/PES-00519. Galdera, Tuterako La Atalaya zentroan izandako istripuaren gisakoak ekiditeko neurrii buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-24/PES-00520. Galdera, Tuterako La Atalaya zentroan izandako istripuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00521. Galdera, SAREBek Nafarroan dauzkan etxebizitza hutsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00522. Galdera, alokairuko etxebizitza babestua eraiki eta kudeatze aldera Nafarroako Gobernuak eratu nahi duen enpresa mistoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00523. Galdera, zaugarritasun-egoeran dauden familiei bertan behera utzitako etxegabetze-prozedurei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-24/PES-00524. Galdera, Leitzako lehengo egoitzaren eraikinari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-24/PES-00525. Galdera, Nafarroan errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakidak berri-tzeko laguntza teknikoaren lizitazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-24/PES-00526. Galdera, C.A. Osasunari lurzatiak saltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-24/PES-00527. Galdera, Nafarroako ikus-entzunezko edukiak biltzeko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-24/PES-00528. Galdera, NA-134 errepidean ehiza-espezieekin izandako istripuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00529. Galdera, 2023ko unibertsitate-beken deialdian eskabide-kopurua jaitsi izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- 11-24/PES-00530. Galdera, Nafarroako Gobernuak eta Europako Inbertsio Bankuak Nafarroako Ubidearen 2. fasearen finantzaketaren kudeaketarako egindako bileretako parte-hartzaile bati buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00531. Galdera, jakiteko ea noiz aurreikusten den sinatuko dela Etxebizitza Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmena, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionala (BAI) sortzera bideratutako dirulaguntza taxutzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00532. Galdera, jakiteko ea zer azterlanetan oinarritzen den lehendakaria Nafarroako enpresen fiskalitateari buruz adierazi duena adierazteko. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00533. Galdera, Nafarroako Gobernua kirol egokitua dela-eta Nafarroan dagoen eskaintzari buruz informatzeko web bat taxutzera premiatzen duen mozioa betetze aldera hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-24/PES-00534. Galdera, Nafarroako Gobernua REFENArA eraman zitezkeen kirolei buruzko azterlan bat egitera premiatzen duen mozioa betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-24/PES-00535. Galdera, Irulegiko eskua jendaurrean modu iraunkorrean erakusteko lekuz aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

**F saila:
GALDERAK**

11-24/PES-00517. Galdera, Europako SEM funtsen urriko datuak gaurkotzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Europako SEM funtsen urriko datuak gaurkotzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du idatziz –2024ko abenduaren 16ko 202408461 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– Europako MRR funtsen urriko datuen eguneraketari buruzko informazioa eskatzeko (11-24/PES-517). Hona Ekonomia eta Ogasunerako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1.- Jarduketa horiek zehazten diren Excel fitxategian sartzean, 127 jarduketa ageri dira "Consulta subproyectos/actuaciones general" fitxan. Falta diren jarduketak zergatik ez dira agertzen?

Iragazkirik aktibatu ezean, gardentasunean bisitaratutako datuek 150 jarduketa erakusten dituzte guztira.

VOLVER AL INDICE							
INSTRUCCIONES DE SELECCIÓN							
1-En esta presentación aparecen todos las actuaciones de gestión de la ACFN con los importes de financiación total prevista (columna I) y con los importes de autorizaciones, disposiciones y obligaciones 2020 a 2026 (columna J, K y L)							
2-En el MENÚ DE LA IZQUIERDA de DEPARTAMENTOS se puede pinchar en el departamento que se quiera FILTRAR .							
Una vez seleccionado un departamento se puede ver en el bloque de componentes en qué componentes participa ese departamento. Para QUITAR EL FILTRO hay que pinchar el botón de quitar filtros (arriba a la derecha del menú, en el icono de un <i>embudo tachado</i>)							
3-En el bloque de COMPONENTES se puede hacer el mismo tipo de selección que en Depa							
			150	621.525.387	89%	553.412.973	78%
						486.237.116	46%
							284.735.265
ID Actuación de gestión	Subproyecto del Sistema de Información (CoFFEEI)	Denominación	FINANCIACIÓN ASIGNADA MRR 2020-2026	AUTORIZACIONES 2020 a 2026	DISPOSICIONES O COMPROMISOS 2020 a 2026	OBLIGACIONES 2020 a 2024	
ID001	C01.I01.P03.S06	Ayudas para la transformación de flotas de transporte de viajeros y mercancías	7.083.963	6.962.634	6.953.572	3.141.802	
ID002	C01.I01.P02.S18	Zonas de bajas emisiones en entornos metropolitanos	12.540.934	14.948.601	13.172.903	11.703.616	
ID003	C01.I02.P03.S17	Plan MOVES II (2020)	2.215.707	1.494.912	1.469.924	1.469.924	
ID004	C01.I02.P03.S17	MOVES III Ejecución de programas de inventivos ligados a la movilidad eléctrica	36.636.049	34.241.165	20.809.000	8.550.722	
ID005	C02.I01.P02.S11	Programa de rehabilitación para la recuperación económica y social en entornos residenciales (rehabilitación protegida).	47.196.000	39.203.722	38.429.995	7.053.751	
ID006	C02.I02.P02.S18	Programa de construcción de viviendas en alquiler social en edificios energéticamente eficientes (arrendamiento protegido).	13.800.000	13.562.664	12.101.229	12.101.229	
ID007	C02.I03.P01.S13	Programa Rehabilitación Energética de edificios (PRFF)	22.125.000	20.720.623	15.130.150	11.345.430	

2.- “Consulta subproyectos/actuaciones por departamentos y componentes” fitxan 153 jarduketako zerrenda ageri da, baina ez da esaten zer epe aurreikusten den betebeharrak aitortzeko. Zergatik?

Datu hori dagoeneko fitxa honetan ageri da: 1-Jarduketen azpiproiektuak (G zutabea). Berrito ere zehazten da ez direla 150 jarduketa, 153 baizik. Dagoeneko jasota dago azalpena, eta bertan zehazten da zergatik igaro diren 153 jarduketa izatetik 150 izatera, proiektuak CoFFEE aplikazioan (Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana kudeatzeko informazio sistema) bateratu ondoren. 1. erlaitzean jasota dagoenez, ez da berrito sartu 2-SUB/ACT iragazkia erlaitzean, bikoiztasuna saihesteko. Hala ere, kontsulta egiten duen erabiltzaileak berak sar dezake, hala nahi badu, Excel taula dinamiko editagarria baita.

ID053, ID124, ID135, ID136, ID139, ID141, ID143, ID144, ID147, ID150, ID152 eta ID153 jarduketa

ketak oraindik ere “egiteke” moduan agertzen dira. Horietako bakoitzari buruz jakin nahi dut: Zergatik ageri dira horrela? Noiz uste duzue ezarriko dela horiek egiteko epea?


“Egiteke” izendapena ematen zaie oraindik behin-behineko lokalizatzailek ez duten (10 azpiproiektu) edo CoFFEE aplikazioan (Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana kudeatzeko informazio sistema) lokalizatzailek ez duten azpiproiektuei (2 azpiproiektu). Erantsitako “Informazio orokorra eta laburpena” dokumentuan, informazio hori zehazten duen laburpen bat erantsi da, datuak bateratzeko. Era berean, 1-jarduketen azpiproiektuaren legendan azaltzen dira CoFFEE azpiproiektuen eta kudeaketa jarduketen arteko aldea azaltzeko terminoak.

Egoera hori Europako Funtsen Idazkaritza Nagusiaren mende dago, hura baita CoFFEE plataformaren arduradun funtzionala, eta ez du zeri-kusirik funtsen gauzatzearekin.

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

Administración de la Comunidad Foral de Navarra

Octubre 2024



Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 10ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-24/PES-00518. Galdera, Next Generation Europako funtsek Nafarroako BPGan duten inpaktuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Next Generation Europako funtsek Nafarroako BPGan duten inpaktuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du idatziz –2024ko abenduaren 16ko 202408462 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– Europako Next Generation funtsek Nafarroaren BPGan duten eraginari buruzko informazioa eskatzeko (11-24/PES-518). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

	2021	2022	2023	2024 (p)	2025 (p)	2026 (p)	2027 (p)	GUZTIZKO A
BPG erreala	0,1	0,6	1,2	1,8	0,9	0,4	0,0	4,9
BPG nominala	0,1	0,5	1,1	2,2	1,3	0,6	0,2	6,0
Enplegua	0,1	0,6	1,4	2,4	2,2	1,1	0,0	7,8

(p) *aurreikuspenak*

Iturria: Ekonomia - Next Generation Zuzendaritza Nagusia.

2021etik 2023ra bitarteko urteetarako, kalkuluak NGEU proiektuetako (bai SEM bai REACT) aurrekontuaren betearazpeneko datuetan daude oinarrituta, bai eta Ekonomia, Merkataritza eta Enpleguko Ministerioaren ELISA plataformako informazioan ere; beraz, 1. taulako emaitzak funtsek urte horietan izandako inpaktu "errealaren" zenbatespenak dira, eta 2024, 2025 eta 2026. urteetako zifrak, berriz, NGEU proiektuen egikaritze egutegian oinarritutako aurreikuspenak dira.

Garrantzitsua da argitzea Cepredek nafar ekonomiarako egindako aurreikuspen eredu ekonometrikoan oinarritutako zenbatespenak direla. 2024-2027 aldirako proiektatutako agertoki makro-

1.- Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen darabil Europako Next Generation funtsek Nafarroaren BPGan 2021, 2022, 2023, 2024, 2025 eta 2026an izan dezaketen inpaktua dela-eta?

Nafarroako Gobernuak urtero zenbatesten du Europako Next Generation funtsek nafar ekonomia- ren magnitude nagusietan, BPG errealean, BPG nominalean eta enpleguan izanen duten inpaktu makroekonomikoa. Zenbatespen horien emaitzak AIReF agintaritzari bidaltzen zaizkio, erabilitako metodologiaren eta datuen deskribapen xehatu batekin batera. Azken aurreikuspenak, 1. taulan ageri direnak, Ekonomia - Next Generation Zuzendaritza Nagusiak egindako 2024-2027 aldirako Nafarroako ekonomia- ren aurreikuspenei buruzko txostenean daude jasota. Txostena AIReF agintaritzari bidali zitzaion 2024ko irailean.

1. taula. NGEU FUNTSEN INPAKTUAREN ZENBATESPENA

(Datuak ehunekotan)

ekonomikoa erreferentziazat hartuta, agertoki alternatibo bat aurreikusten da (Europako funtsik gabe), SEEP proiektuei lotutako fluxuak deskontatzen dituen. Ondoren, agertoki alternatiboan lortutako emaitzak oinarri hartutako agertokioekin alderatzen dira, SEEParen funtsen eragin ekonomikoa kalkulatzeko.

2.- Funts horiek zer inpaktu erreal izan dute Nafarroaren BPGan 2021, 2022 eta 2023an?

Aurreko apartatuan azalduenez, 2021, 2022 eta 2023. urteetarako 1. taulako datuak NGEU funtsek nafar ekonomian urte horietan izan duten inpaktu errealaren zenbatespenak dira. BPG erreala dagokionez, inpaktua ehuneko 0,1ekoa izan

omen da 2021ean, 0,6 puntukoa 2022an eta 1,2 puntukoa 2023an.

3.- Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen zerabilen Europako Next Generation funtsek muntako beste aldagai ekonomikotan izan beharreko inpaktuari dagokionez?

Berriz ere azpimarratzen ditugu 1. taulako emaitzak, bertan jasota baitaude ere bai NGEU funtsek BPG nominalean eta enpleguan izandako inpaktuaren zenbatespenak.

4.- Funts horiek zer inpaktu erreal izan dute aldagai horietan 2021, 2022 eta 2023an?

1. taulan jasota daude NGEU funtsek 2021 eta 2023 bitarte BPG nominalean eta enpleguan izandako inpaktu errealaren zenbatespenak.

5.- Funts horiek zer diru-mobilizazio izan dute Nafarroaren ekonomia errealean 2021, 2022 eta 2023an?

Nafarroako Foru Komunitateak NGEU proiektuei lotuta egindako gastuen bolumena 2021, 2022 eta 2023. urteetan zehar 600,1 milioi eurokoa izan

da, eta BPG errealean ehuneko 1,9ko zuzeneko inpaktua izan dute, 1. taulan ikusten ahal denez.

Foru Komunitateko Administrazioak kudeatzen dituen Europako berreskuratze funtsei dagokienez, gaur egun Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarekin lotutako 150 jarduketa hartzen dituzte barnean. Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari esleitutako finantzaketa bolumen osoa 621,53 milioi eurokoa da, eta horietatik 177,76 milioi euro exekutatu dira 2021, 2022 eta 2023 artean. Zenbateko horri 148,2 milioi gehitu behar zaizkio, REACT-EU mekanismokoak, zeinetatik 129,07 milioi exekutatu diren hiru urte horietan. Guztira, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak zuzenean kudeatzen dituen proiektuek 769,73 milioi euroko finantzaketa dute aurreikusita, eta 2023ra bitarte 306,83 milioi exekutatu dira.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 10ean

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-24/PES-00519. Galdera, Tuterako La Atalaya zentroan izandako istripuaren gisakoak ekiditeko neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Tuterako La Atalaya zentroan izandako istripuaren gisakoak ekiditeko neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00519). Hona hemen galdera hori:

- Tuterako La Atalaya zentroan gainbegiratu gabeko moduluan zegoen pertsona bat hil zen azaroaren 29an izandako istripuan. Hori dela-eta,

Zer neurri hartuko du Nafarroako Gobernuak halakorik berriz gerta ez dadin?

Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialetako eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Unitate horren erabiltzaileek autonomia maila ona dute, egunero irteten dira komunitatera, eta horietako batzuk beste unitate batzuetako kideekin irteten dira, profesionalen gainbegiraterik gabe. Une hartan unitate horretan zeuden egoiliarretako batek ere ez zuen eguneko hogeita lau orduetan etengabe gainbegiraturia izateko beharrik.

Bazkalorduan, egunero bezala, erabiltzaileak zaintzaile batekin zeuden. Bazkariaren amaieran soilik alde egin zuen zaintzaileak beste unitate batean laguntza ematera.

Zentroko zuzendaritzak egindako txostenean jasota dagoenaren arabera, gertakariak 13:45 inguruan izan ziren. Unitate horretako zaintzaileak alde egin zuen laguntza prem ia handiagoa zuen beste unitate bati bazkalorduan laguntza ematera. Erabiltzaileak bazkaltzen utzi zituen eta beste unitate batera joan zen postrea hartzeko unean. 13:45ean, zaintzaileak, zaintzaileen koordinatzailea ere bade-nak, Queiles unitatetik alde egin zuen.

13:46 inguruan, Queileseko erabiltzaileetako batek aisialdiko begiraleari abisua eman zion. Abisua jaso ondoren, aisialdiko begiralea, hezitzailea eta terapeuta okupazionala adierazitako unitatera joan ziren, eta 13:47an bihotz-biriketako errekupe-razio maniobrak egin zituzten. 13:48an, zuzendar-riari deitu zioten. Abisua eman ondoren, ambulanz-ia 13:50ean iritsi zen.

Adierazi behar da desgaitasuna duten pertsonentzako zentroek bertan bizi diren guztientzat ahalik eta autonomia handiena lortzeko lan egiten dutela, haien nahiak eta lehentasunak kontuan hartuta eta etxe baten ahalik eta ingurune antzekoena bilatuta. Indibidualizazio horretan, egoiliar batzuek etengabeko gainbegiratzea behar dute; beste batzuen kasuan, aldiz, esku-hartzeko planaren baitan, haien autonomia eta jarduera independentea sustatzen dira. Logikoa denez, istripuak gerta daitezke bai autonomia duen pertsona bat bakarrik dagoen uneetan, bai profesionalekin batera dagoen uneetan. Beraz, ez dugu segurtasunaren mesedetan erabiltzaileen askatasuna mugatu behar.

Istripua gertatu ondoren, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak bilerak egin zituen zentroko zuzendaritzarekin, langileen batzordearekin eta familiekin.

Gainera, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialetako eta Enpleguko Departamentuak desgaitasuna duten pertsonentzako zentroen aldizkako jarraipena egiten du jarraipen batzordeen bidez (Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia) eta Ikuskaritza Zerbitzuaren ikuskapenen bidez.

Kasu honetan, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialetako eta Enpleguko Departamentuak ez du beharrezkotzat jotzen salbuespenezko neurriak hartzea, egoiliar bakoitzarentzat zer laguntza eta zer unetan behar den identifikatzen lagunduko diguten arrisku-faktoreak ahalik eta ondoen identifikatzeko gomendioak emateaz harago.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 14an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialetako eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafraña

11-24/PES-00520. Galdera, Tuterako La Atalaya zentroan izandako istripuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak Tuterako La Atalaya zentroan izandako istripuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak 11-24/PES-00520 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

1. Lehenbiziko puntuari dagokionez, zentroko zuzendariaren txostena erantsi da.

2. Bigarren puntuaren harira, une horretan 1/4,5 zen zaintzaileen ratioa.

Unitateen arabera:

- Ebro1: 1/5 (heriotza gertatu zenean)
- Ebro2: 1/5
- Moncayo1: 1/5
- Moncayo2: 1/3,4 (hiru zaintzaile 11 pertsonarentzako)
- Bardea: 1/5
- Queiles: 1/4

3. Hirugarren puntuari dagokionez, adierazi behar da desgaitasun intelektuala duten pertsonen arreta integrala emateko zentroen kudeaketa egiteko kontratu publikoa arautu behar duen klausula teknikoaren pleguan jasota dagoela. Dokumentu hori Nafarroako Gobernuaren Kontratazio Atarian dago eskuragarri.

Eta honako hau jasotzen du zehazki:

Ordezkapenak:

- Urteko ordutan adierazitako profilei dagokionez, kontratuaren hasieran, Zentroko Zuzendariak Eskubide Sozialetako Departamentuari jakinaraziko dio urteko egutegia, txanda bakoitzean edo

ordu tarte jakin batean txandakatze sistema ezarrita. Eskatutako plantillan ezarritako urteko orduak betetzen direla egiaztatu ondoren, ordezkapenak nahitaezkoak izanen dira lehen egunetik, jakinarazitako txandaketan bertan egotea bermatzeko.

- Jakinarazitako txandakatzean izandako presentziak justifikatu gabe ez betetzea (okupatu gabe egotea, salbuespenezko inguruabarrak, hala nola gutxieneko greba-zerbitzuak, etab.) zigorrak aplikatzeko arrazoi izan daiteke, lantokiko administrazio klausuletan ezarritakoaren arabera.

- "Langile baliokideak" izenekoan ezarritako langileak nahitaez ordeztu beharko dira lehenengo egunetik, 15 egun naturaletik gorako baja, lizentzia edo baimena aurreikusten bada, edo 16. egunetik aurrera, absentziaren iraupena aurreikusi ez bada.

- Edozein arrazoik eragindako lanaldi murrizketak nahitaez ordeztu beharko dira. Aurrekoa gorabehera, lanaldi murriztuaren ehunekoa edo ezarritako ordutegia dela-eta ordezkapenik egiterik ez badago, ANADPEk alde aurretik baimenduta, profil bereko ordezkapenerako murriztutako orduak lanaldi osoetan edo partzialetan metatzen ahalko dira. ANADPEn baimenik izan ezean, ordezkapenik ez egitea ezarritako plantillaren ez-betetzat hartuko da, eta zigorrak ezarriko dira, administrazio klausuletan ezarritakoaren arabera.

- Eskatutako plantilla betetzen ez bada, administrazio klausuletan ezarritakoaren arabera zigorrak ezartzeaz gain, ordeztu gabeko soldatari dagokion zenbatekoa itzuli edo erregularizatu beharko da.

4. Laugarren puntuari dagokionez, 2024. urtean zentroari egindako azken ikuskapenaren txostena erantsi da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

(Oharra: Aipatu eranskinak foru parlamentarien eskura daude Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

11-24/PES-00521. Galdera, SAREBek Nafarroan dauzkan etxebizitza hutsei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak AREBek Nafarroan dauzkan etxebizitza hutsei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak informazio eskaera egin du (11-24/PES-00521). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Unera arte Nasuvinsak kontaktu bakarra izan du Banku Berregituraketatik datozen Aktiboak Kudea-

tzeko Sozietatearekin (SAREB), zehazki Lekunberri kokatutako bizitoki eraikin baten salerosketa akordio posible bat aztertzeko; hala ere, azkenean ez zen lortu alde bientzako akordio egokirik. Aipatutako bizitoki eraikinak, Iturriburu kaleko 2an kokatutakoak, narriadura egoera larria zuen, 2024ko ekainean Nafarroako Parlamentuari egindako PEI 531 galderarako erantzunaren I. eranskinean zehazten denez. Lekunberriko higiezin horren salerosketako akordiorik ez lortzeak eragotzi egin zuen Nasuvinsak kudeatzen duen Nafarroako Gobernuaren Alokairuen Poltsaren programan hura sartzeko uzia, horrek alde aurretik bertan birgaitze eta egokitze lan handia egitea exijituko bailuke.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00522. Galdera, alokairuko etxebizitza babestua eraiki eta kudeatze aldera Nafarroako Gobernuak eratu nahi duen enpresa mistoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak alokairuko etxebizitza babestua eraiki eta kudeatze aldera Nafarroako Gobernuak eratu nahi duen enpresa mistoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak informazio eskaera egin du (11-24/PES-00522). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Proiektuak garapen fasean jarraitzen du. Azken hilabeteetan aurrerapenak egin dira truke teknikoak eginez zenbait enpresa elkarterekin (Nafarroakoak eta estatukoak), beste entitate publiko batzuekin eta Kreditu Ofizialeko Institutua-

rekin nahiz Europako Inbertsio Bankuarekin (EIB). Datozen hilabeteetarako asmoa da izapideak has-tea Nafarroako alokairu eskuragarriaren etorkizuneko enpresa mistoaren bazkide pribatua hautatzeko eta lizitzatzeko prozesurako.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00523. Galdera, zaurgarritasun-egoeran dauden familiei bertan behera utzitako etxegabete-prozedurei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak zaurgarritasun-egoeran dauden familiei bertan behera utzitako etxegabete-prozedurei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-24/PES00523 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Galdera: Etxebizitza-aukerarik gabeko zenbat familia zaurgarri aplikatzen ari zaie Nafarroan etxegabete-prozeduren etetea, errege lege-dekretu horretan oinarrituta?

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuari kontsulta egin ostean, jakinarazten da Nafarroako Gobernuak ez daukala eskatutako informazioa, datu horiek Justizia Administrazioari baitagozkio.

Galdera: Nafarroako Gobernuak babes sozialeko neurriren bat aurreikusten al du familia horientzat 2025eko urtarrilaren 1etik aitzina?

Nafarroako Gobernuak ez du babes sozialeko neurri berezirik familia horientzako. Aplikatzekoak zaizkie dauden etxebizitza politikako neurri orokorrrak, 2025erako nabarmenduta Bizitegi Merkatu Tenkatuko Eremuak onestea aurreikusten dela, bai eta martxan jartzea ere pertsona eta familia errentariei laguntza emateko eta bitartekaritza egiteko zerbitzu berri bat.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00524. Galdera, Leitzako lehengo egoitzaren eraikinari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Leitzako lehengo egoitzaren eraikinari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-24-PES-00524 idatzizko galderari dagokionez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Nafarroako Gobernua Leitzako Amazabal BHIren eskola esparruan kokatutako egoitza zaharraren jabe da (2. industrialdeko 56. partzela), eta Hezkuntza Departamentuari adskribatuta dago.

Amazabal BHIk ikasteko eremu guztiak ditu hiru eraikinetan banatuta (eraikin nagusia, jantoki

aharra eta beste eraikin bat galtzadaren beste aldean, institutuko esparrutik oso gertu). Horrez gain, beste eraikin bat dago, egoitza zaharrarena, erabiltzen ez dena ez delako beharrezkoa araudiak exijitutako gutxieneko espazioetako betekizunak betetzeko.

Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzuko teknikariek eraikina ikuskatu dute zenbait aldiz, baina ez da horren inguruko azterlan sakonik egin ez baita berebizikotzat jotzen hura erabiltzen hastea.

Hezkuntza Departamentuak datozen urteetan eraikinean egiten ahal dituen esku-hartzeak ingurutik dabilen edonoren segurtasuna bermatzeko behar direnak izanen dira.

Hezkuntza erabileretarako behar ez denez, Hezkuntza Departamentuak aztertuko du behar duten administrazioek zer erabilera alternatibo ematen ahal dioten.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 14an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-24/PES-00525. Galdera, Nafarroan errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakidak berritzeko laguntza teknikoaren lizitazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Nafarroan errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakidak berritzeko laguntza teknikoaren lizitazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-24/PES-00525 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Nafarroako errepide bidezko hiriarteko garraio publikorako emakidak berritzeko laguntza teknikoa lizitatzeari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Kanpoko laguntza teknikoaren plegua 2024ko abenduan lizitatu zen eta eskaintzak aurkezteko epea urtarrilaren 20an amaituko da.

Une honetan, Iruña – Irun, Baztan-Bidasoa emakidaren plegua berrikuspen fasean dago, eta, seguruenik, amaitutzat emanen da urtarril amaieran. Gero hasiko dira lizitatzeko izapideak.

Iruña–Pirinioetako eskualdearen emakida, seguruenik, 2025eko udan zehar lizitatuko da.

Gainerako emakidak, Iruña–Lizarrak–Logroño–Donostia, Lizarrako eskualdea eta Erriberagoienera, eta Iruña–Donostia, ipar-mendebaldeko eremukoak, aurreikusten da 2026ko hasieran lizitatuko direla.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00526. Galdera, C.A. Osasunari lurzatiak saltzeari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak C.A. Osasunari lurzatiak saltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-24/PES-00526 galdera idatzia egin du C.A. Osasu-

nari saldutako lursail baten inguruan inguruan. Hona hemen Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Galdera Ekonomia eta Ogasun Departamentuari egin behar zaio, Departamentua horrek baititu ondareko eskumenak. Beste batzuen artean, Nafarroako eskubideak eta ondasunak lagatzearen, besterentzearen eta eskuratzearen ingurukoak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 10ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo

11-24/PES-00527. Galdera, Nafarroako ikus-entzunezko edukiak biltzeko proiektuari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Nafarroako ikus-entzunezko edukiak biltzeko proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00527). Hona hemen horretaz ematen den informazioa:

Nafarroako Gobernuaren helburuetako bat da Nafarroako herritarrentzat interesgarriak diren ikus-entzunezko edukiak biltzen dituen webgune bat sustatzea eta indartzea. Testuinguru horretan, ikus-entzunezko edukien agregatzaile-proiektua Nafarroa Markako edukiekin hasi da, hala nola

Nafarroa sektore estrategikoen arabera sustatzeko ikus-entzunezko piezekin, Nafarroak hainbat eremutan dituen indarguneen funtsezko alderdiei buruzko ikerketa-txostenekin, nortasun grafikoa duten fitxategien gordailuarekin proiektuen euskarrietan berrerabiltzeko, ekitaldiekin, sustapen-pieza edo -erreferentzia tematizatuak sartzeko podcasten atalarekin. Foru Gobernua proiektu hori hobetzen eta sustatzen ari da, eduki berriak txertatuz. Horretarako, Foru Komunitateko ikus-entzunezko materiala duten beste erakunde batzuekin akordioak bultzatzea espero da, inolako kontraprestazio ekonomikorik gabe. Azkenik, aipatu behar da azken hilabeteetan harremanak izan direla Nafarroako Ikus-entzunezkoen Klusterrarekin proiektu horri ekiteko. Nafarroa Telebistari dagokionez, ez da akordiorik edo hitzarmenik sinatu proiektu hori garatzeko.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 16an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00528. Galdera, NA-134 errepidean ehiza-espezieekin izandako istripuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak NA-134 errepidean ehiza-espezieekin izandako istripuei buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-24/PES-00528 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, NA-134 errepidean ehiza espezieekin izandako istripuei buruz buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko Foru Dekretuan ezarritakoren arabera, Basoen eta Ehizaren Zerbitzuaren eskumena da Basoak Kudeatzeko Atalaren eta Ehiza Kudeatzeko Atalaren bidez ematea ehiza jardueraren inguruko aholkularitza teknikoa.

Horrenbestez, galdera parlamentario horretarako erantzuna espezie horren ehiza kudeaketako alderdiak adieraziz baino ez da emanen.

2. Basoen eta Ehizaren Zerbitzuak Ehiza Kudeatzeko Atalaren bidez parte hartzen du departamentuarteko bileretan, Lurralde Kohesiorako Departamentuarekin eta Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuarekin batera, ehiza espezieek Nafarroako errepideetan eragindako istripuak jorratzeko.

Duela gutxi, aurtengo irailean, Zainketa Zerbitzuaren lantaldearen bileraren esparruan, Instalazioen, Teknologien eta Bide Segurtasunaren Atalaren bidez informazioa eskatu zitzaion Ehiza Kudeatzeko Atalari Nafarroako hainbat errepidetako zenbait puntutan dauden animalien igarobideen inguruan, beste batzuen artean, seinale eta alerta sistemak kokatzeari buruzko alderdiak baloratzeko.

NA-134 errepidea, Ebroko Ardatza, eta zehazki 9+000 eta 14+000 KPak, zerrenda horretan zeuden.

Une honetan eskatutako informazioa idazten amaitzen ari da, Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldearen langileek egindako in situ ikuskapenen bitartez.

3. Bestalde, Ehiza Kudeatzeko Atalean aurrez aipatutako Gobernuako Departamentuek emandako informazioa dago, errepide horretako ezbehar kopuruaren ingurukoa.

Zehazki, jakin denez, 2024. urtean zehar, 2024ko abenduaren 15era arte, 22 istripu egon dira NA-134 errepide horretan ehiza faunarekin, Tuterako udal mugartean, funtsean 9 eta 14 kilometro puntuen artean. Horietako 21 basurdeekin izan ziren, eta bat orein edo orkatzarekin. Batean baino ez zen zauriturik egon.

Aurreko urteetan ehiza ungulatuekin izandako istripuei dagozkien datuak aztertuz gero, zehazki 2017tik 2023ra bitarteko aldian, ikusten da zazpi urte horietan 3.152 istripu egon zirela basurdeekin eta 1.564 zerbidoekin. Hortaz, urteko batez beste, 450 istripukoa da basurdeekin, eta 223 istripukoa zerbidoekin.

Horrez gain, nola estatuko hala Europako joera orokorrarekin bat, goranzkoa izan da. Badirudi joera hori lotuta dagoela bai ugaritasunaren hazkundearekin bai ungulatuen populazioen banaketarekin, baina errepideen eta lurraldearen ezaugarri lotutako beste faktore batzuekin baita ere.




Figura 2. Nº accidentes por especie registrados en la red viaria navarra durante los últimos 7 años.

Bestalde, basurdeekin izandako istripu gehienak garai berean gertatzen dira (urritik abendura), lehenago edo geroago, baina beti tarte horren barruan. Datu hori bat dator espeziearen araldiarekin eta espezie hori gehien lekualdatzen den garaiarekin, bai ugalketatik beragatik bai baliabide trofikoaren bilaketagatik (basoko fruituak, esatera-

ko); horrez gain, garai horretan artoa uztatzen denez, elikatzeko eremu handiak desagertzen dira.

Beheko taulan istripu gehien izan dituzten kilometro puntuak erakusten dira (hamar istripu baino gehiago), 2019-2023 aldirako, handienetik txikienera ordenatuta.

CTRA	Denominación	pk	NºAcc	NºAcc_jab	NºAcc_cerv
N-240-A	Pamplona/Iruña-Vitoria/Gasteiz	16	34	19	15
NA-134	Eje del Ebro	12	28	27	1
N-135	Pamplona/Iruña-Francia (Luzaide/Valcarlos)	14	23	14	9
N-121	Pamplona/Iruña-Tudela	22	22	15	7
N-135	Pamplona/Iruña-Francia (Luzaide/Valcarlos)	11	20	12	8
NA-132-B	Variante de Igúzquiza	2	19	5	14
NA-134	Eje del Ebro	10	19	19	0
N-121-C	Tudela-Tarazona	12	17	15	2
NA-132-B	Variante de Igúzquiza	0	17	9	8
NA-134	Eje del Ebro	13	17	17	0
NA-5330	Pitillas-Santacara-Mélida	6	17	17	0
N-240-A	Pamplona/Iruña-Vitoria/Gasteiz	13	16	11	5
NA-134	Eje del Ebro	11	16	16	0
NA-150	Pamplona/Iruña-Aoiz/Agóiz-Lumbier	4	16	13	3
NA-6810	Montes de Cierzo-Corella	3	16	7	9
N-135	Pamplona/Iruña-Francia (Luzaide/Valcarlos)	17	15	12	3
NA-132-A	Estella/Lizarra-Vitoria/Gasteiz	6	15	12	3
NA-132-A	Estella/Lizarra-Vitoria/Gasteiz	20	15	11	4
NA-150	Pamplona/Iruña-Aoiz/Agóiz-Lumbier	1	15	9	6
N-121	Pamplona/Iruña-Tudela	20	14	11	3
N-135	Pamplona/Iruña-Francia (Luzaide/Valcarlos)	10	14	12	2
NA-134	Eje del Ebro	9	14	14	0
NA-411	A-15-Ostiz/Ostiz	21	14	7	7
N-135	Pamplona/Iruña-Francia (Luzaide/Valcarlos)	12	13	10	3
NA-132	Estella/Lizarra-Tafalla-Sangüesa	4	13	10	3
NA-5330	Pitillas-Santacara-Mélida	5	13	12	1
PA-30	Ronda de Pamplona/Iruña	10	13	8	5
NA-132-A	Estella/Lizarra-Vitoria/Gasteiz	25	12	9	3
N-121	Pamplona/Iruña-Tudela	16	11	5	6
N-135	Pamplona/Iruña-Francia (Luzaide/Valcarlos)	13	11	6	5
NA-132	Estella/Lizarra-Tafalla-Sangüesa	3	11	7	4
NA-150	Pamplona/Iruña-Aoiz/Agóiz-Lumbier	17	11	7	4
NA-7320	Lorca/Lorka-Abárzuza/Abartzuza	0	11	5	6

Tabla 2. Puntos kilométricos (pk) con más de 10 accidentes con ungulados cinegéticos en el periodo 2019-23

Ikusten denez, NA-134 errepideak zenbait kilometro puntutan ezbehar kopuru handia du, barnean hartuta 9-14 tarteak. Are gehiago, errepiderik zuzenenetan, bihurtune gutxien dituztenetan, estatistikoki istripu gehiago izaten dira ehiza faunarekin. Baliteke tarte zuzenenetan, bihurtune gutxikoetan, azkarrago gidatzearen ondorioz izatea hori, errepide bihurtunearen aldean. Halaber, basurdeen dentsitatea faktore garrantzitsua omen da aztertu diren tarteetan istripuak izateko probabilitaterako.

4. Aurrez azaldutakoa oinarri hartuta, eta Basoen eta Ehizaren Zerbitzuaren eskumenen esparruan, zona horretan istripuak murrizteko egin beharreko jarduketak batzuk izaten ahal dira, esaterako, ehiztariak presio handiagoa izatea basurdeen populazioengan, bereziki urritik abendura bitarteko hilabeteetan, garai horretan egoten delako ezbehar kopururik handiena.

Beste neurri batzuk, hala nola inguruko nekazaritza laboreen antolaketa, errepideko jarduketak eta seinaleztatzea, hesiak jartzea, fauna igarobideak eta abar ez dira unitate honen eskumena.

Basurde populazioen gaineko presioa areagotzeko neurrien harira, nabarmentzekoa da hizpide den eremua ez dagoela sartuta ehiza barruti batean ere; ehiza gabeko lur eremua da, baina, hala ere, kasuko ehiza barrutian sartzen ahal da eremua, kasu honetan NA-10.013an, Tuterako Udala duena titulartzat. Aukera da ere bai Errege Bardeako NA-10.042 tokiko ehiza barrutian sartzea. Bigarren kasu horretan, beste toki entitate batena denez, eta toki entitateak direnez haien mugartean tokiko barrutiak sustatzen ahal dituzten bakarrak, lurra dauden toki entitatearen baimena behar da, kasu honetan Tuterako Udalarena.

Tuterako ehiza barrutiaren kasu zehatzean, 2020. urtean eratu zen, eta indarraldia 2024-2025 ehiza denboraldia amaitzean bukatzen da. Beraz, 2025. urtean berri beharreko barrutietako bat da, eta Tuterako Udalak eta lurren jabeek baloratu beharko dute horiek sartu ala ez. Errege Bardeko barrutia berri eratu da, 2024ko ekainaren 21ean, eta indarraldia 2033-2034 denboraldiaren amaierara arte da.

Ehiza Kudeatzeko Atalak eta Basoak Kudeatzeko Atalak, toki entitateekin egindako bileren esparruan, ehiza antolamendurako planak eratzeko, lehenengo kasuan, behin ehiza barrutia eratu ondoren, arazo horri helduko diote, alderdiek

Basoen eta Ehizaren Zerbitzuak duen informazio guztia ezagut dezaten, lehen aipatutako eragileen –toki entitateen eta lurren jabeen– erabakiak hartzeko prozesua oinarritzeko.

Tokiko barrutian sartuz gero, debekualdiei buruzko foru aginduaren esparruan ehizatzen ahalgo litzateke.

Horren arabera, eta lurra mugatuta badaude, basurdea ehizatzen ahalgo da abuztuaren 15etik otsailaren amaierara arte, ostegun, larunbat, igande eta jaiegun nazional, foral edota tokikoetan, suzko arma erabiliz uxaldietan eta ehizaldietan, eta arkuarekin uxaldietan, ehizaldietan eta zelatetan.

Horrez gainera, abuztuaren 1etik uztailaren 31ra bitarte, basurdea egunero ehizatzen ahalgo da suzko arma edo arkuz zelata ehizan eta gaueko itxaronaldietan.

Eta ehiza antolatzeko planaren berezitasunekin bat etorritik.

Hala ere, une honetan zona EZ dagoenez sartuta ehiza barruti batean ere, espezie horretako populazioak murrizteko aukerak honako honek arautzen ditu: 207E/2021 Foru Agindua, abuztuaren 3koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baita pertsonen osasunari edo segurtasunari, nekazari-tzari, basogintzari, abeltzaintzari edo basa faunari kalte handiak egiten dizkieten ehiza-espezieak kontrolatzeko metodoak arautzen dituen xedapena. Nabarmendu behar da aipatutako araua, 207E/2021 Foru Agindua, ez dela aplikatzekoa lurretan, zeinetan titular nahiz jabeek ondoko ehiza barrutian sartzeari berariaz uko egiten edo egin dioten; hortaz, are garrantzitsuagoa da lursail horiek barrutiko zonan sartzeari heldzea, ehiza gabeko lurra izateari utz diezaioten.

Basoen eta Ehizaren Zerbitzuaren artxiboetan dagoen informazioaren arabera, 2004. urtetik eta une honetara arte 118 eskaera erregistratu dira basurdea ehizatzeo salbuespeneko baimena eskuratzeko, nekazaritzan kalte egiteagatik, eta horietatik 115 eman dira.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00529. Galdera, 2023ko unibertsitate-beken deialdian eskabide-kopurua jaitsi izanari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak 2023ko unibertsitate-beken deialdian eskabide-kopurua jaitsi izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera

egin du 2023ko unibertsitate-beken deialdiko eskaerak gutxitzeari buruz (11-24/PES-00529). Hona Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak ez daki zergatik urte horretan eskaera-kopurua murriztu zen.

Hala ere, deialdia hobeto zabaltzeko hobekuntza batzuk egin dira, hala nola sare sozialetan komunikazio-kanpaina abian jartzea, laguntza hori jaso dezaketen pertsona guztiek horren berri izan dezaten.

Beka-eskaeren kopuruari buruz eskatutako datuak erantsi dira.

2015-16	2016-17	2017-18	2018-19	2019-20	2020-21	2021-22	2022-23	2023-24
5.180	5.146	5.139	5.554	5.353	6.125	5.677	4.586	5.254

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

11-24/PES-00530. Galdera, Nafarroako Gobernuak eta Europako Inbertsio Bankuak Nafarroako Ubidearen 2. fasearen finantzaketaren kudeaketarako egindako bileretako parte-hartzaile bati buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Nafarroako Gobernuak eta Europako Inbertsio Bankuak Nafarroako Ubidearen 2. fasearen finantzaketaren kudeaketarako egindako bileretako parte-hartzaile bati buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera

egin du Nafarroako Gobernuak eta Europako Inbertsio Bankuak Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen finantzaketa kudeatzeko bileretako parte-hartzaile bati buruz (11-24/PES-00530). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Josep Oriol Bellot Miana jaunak Europako Inbertsio Bankua ordezkatzeko du eta Senior Engineer (ingeniari seniorra) gisa parte hartu zuen Europako Inbertsio Bankuko proiektuen Zuzendaritza Nagusian.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00531. Galdera, jakiteko ea noiz aurreikusten den sinatuko dela Etxebizitza Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmena, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionala (BAI) sortzera bideratutako dirulaguntza taxutzeko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea noiz aurreikusten den sinatuko dela Etxebizitza Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmena, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionala (BAI) sortzera bideratutako dirulaguntza taxutzeko, 2024ko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, Etxebizitza Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko Hitzarmena sinatzeko aurreikusitako datari buruz, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionala (BAI) sortzeko dirulaguntza bideratzeko (11-23/PES-00209). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Etxebizitza eta Hiri Agenda Ministerioarekin hitzarmena 2024ko abenduaren 11n sinatu zen.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 8an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

11-24/PES-00532. Galdera, jakiteko ea zer azterlanetan oinarritzen den lehendakaria Nafarroako enpresen fiskalitateari buruz adierazi duena adierazteko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Elizalde Urmeneta andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea zer azterlanetan oinarritzen den lehendakaria Nafarroako enpresen fiskalitateari buruz adierazi duena adierazteko, 2024ko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana María Elizalde Urmeneta andreak idatziz erantzuteko galdera egin du —Nafarroako Parlamentuaren erregistroan 202408476 zenbakiarekin erregistratu da, 2024ko abenduaren 16an— Lehendakariak Nafarroako enpresen fiskalitateari buruzko baieztapenak egiteko oinarritzat hartu dituen azterlanei buruz (11-24/PES-532). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Lehendakariak egindako baieztapenak kontuan hartu zuen Nafarroako Foru Ogasunak, Estatuko Zerga Agentziak eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru foru-ogasunek aplikatutako sozietateen gaineko zergaren araudia. Eskematikoki hauek dira administrazio bakoitzak aplikatutako karga-tasak.

Nafarroako Zerga Ogasuna

		TG
Orokorra	eragiketa bol. > 20 M	% 28
Enpresa txiki eta ertainak	eragiketa bol. > 1 M - =<20 M	% 23
MikroETEak	eragiketa bol. =<1 M	% 19

Zerga Agentzia

		TG
Orokorra	eragiketa bol. >1 M	% 25
MikroETEak	eragiketa bol. =<1 M	% 23

Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Ogasuna

		TG
Orokorra	eragiketa bol. >10 M	% 24
*MikroETEak eta ETEak	eragiketa bol. =<10 M	% 20

*MikroETEak: 2M eta 10 langile, ETEak: 10M eta 50 langile

Nafarroako Zerga Ogasunak Sozietateen gaineko Zergari buruz argitaratutako azken estatistikan egiazta daitekeenez (ikus URLa erantzunaren amaieran), 2022ko ekitaldian, 6.422 aitortzailek (% 57) % 19ko tasan tributatu zuten zerga kenkarien aurretik; 2.235 aitortzailek (% 20) % 23ko tasan tributatu zuten kenkarien aurretik; 2.021 aitortzailek (% 18) % 28ko tasan tributatu zuten kenkarien aurretik; eta 651 aitortzailek (% 6) beste tasa batean, % 10eko karga-tasa duten aitortenak eta c03 laukian daturik ez duten aitortenak (berriazko kodetzearen ondoriozko karga-tasa) Gizarte Ekonomiako sozietateei dagozkie nagusiki: Koope-
ratibak eta Lan Elkartek.

Hori guztia kontuan hartuta, erraz ondoriozta daiteke aitortzaileen % 82k, edo, bestela esanda,

"seitik ia bostek", karga-tasa txikiagoa dutela Nafarroan Espainiako gainerako erkidegoetan baino, kenkarien aurretik.

*Aipatu den estatistika webgune honetan ikus daiteke: https://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Economia+y+Hacienda/Organigrama/Estructura+Organica/Hacienda/Impuestossociedades.htm

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez eta bidalitako informazioa konfidentziala dela adieraziz

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-24/PES-00533. Galdera, Nafarroako Gobernua kirol egokitua dela-eta Nafarroan dagoen eskaintzari buruz informatzeko web bat taxutzera premiatzen duen mozioa betetze aldera hartutako neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak Nafarroako Gobernua kirol egokitua dela-eta Nafarroan dagoen eskaintzari buruz informatzeko web bat taxutzera premiatzen duen mozioa betetze aldera hartutako neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 17ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak galdera idatzia egin du 11-24/MOC-00043 mozioa betetzeko hartutako neurriei buruz (11-24/PES-00533). Hona hemen Nafarroako Gobernuo Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

2024ko maiatzetik Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren webgunean atal espezifiko bat dago: kirola eta desgaitasuna. Informazio-atal hau menu nagusiko zerrenda horizonta-

lean dago, "kirol jarduerak" atalean. Atala elementu egituratu eta antolatua da, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren webgunearen barruan funtzio argia izan dezan, bai diseinuan, bai edukian.

Goiburua desgaitasuna dutenentzat oso erabilgarria den nabigazio-orientazioko mekanismo gisa garatu da. "Kirola eta desgaitasuna" izenburuak metadatu argi eta zehatz gisa funtzionatzen du, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren webgunearen barruan bilaketarako irisgarritasuna errazten duena, bilatzaile integratuaren bidez. Horrez gain, xede etiketa gisa ere funtzionatzen du, kontsultatzen ari den atalaren helburua eta edukia argi eta garbi identifikatzen dituena, eta horrek indexazio hobea eragiten du Internet bilatzeko motorretan. Hau da, erabil-tzaileen azkar batean desgaitasuna dutenentzat kirolari buruzko atala aurkitzea errazten du horrek.

Atalaren izenburua idatziz dago, eta irudi argi eta zehatzak daude; horietan, desgaitasuna duten kirolariak Nafarroako jardueretan hainbat kirol praktikatzen ikusten dira. Hain zuzen ere hiru kirol ikusten dira: gupil-aulkiko saskibaloia, hipika eta judoa, adin eta desgaitasun-mota desberdinetako kirolari nafarrekin, ingurunean benetan egiten diren jardueren adibide gisa.

Informazioa orrialde bakar batean sartu da, eta informazio guztia plano bakar batean jarri da, pertsonen pop up edo bestelako programa intrusiborik egin behar izan gabe edo pantailaz aldatu gabe ikusi ahal izateko.

"Kirola eta desgaitasuna" izeneko atal espezifikoak erakusten duen informazioa bat dator kirolean berdintasuna sustatzeko helburuekin, genero berdintasunaren eta desgaitasunen bat duten pertsonen aldeko ekintza zuzen argi baten bidez. Informazio horren arabera, desgaitasunen bat duten pertsonak kirolean sartzeko programa zehatzak garatzea du funtsezko ardatz, eta hori hainbat bidetatik egiten du:

- Nafarroako Kirol Joko Egokituen Federazioak kudeatutako Nafarroako Kirol Jokoen programarekin, non 2023an 1.259 gaztek parte hartu zuten desgaitasuna duten pertsonentzako kirol modalitate ezberdinetan. Esteka bat ezarri da Nafarroako Kirol Egokituen Federaziorako atalean, edozein erabiltzaileek programak eta jarduerak ikusteko aukera izan dezaten, eta garatzen ari diren lehia-ketei buruzko informazio eguneratua eta horiek eskuratzeko modua izan ditzaten.

- Dokumentu espezifiko batekin, zeinak azaltzen baitu zer jarduera zehatz egin diren desgaitasunen bat duten hainbat kolektiborekin 2023an, eta 2024an egindakoarekin eguneratuko da (.pdf dokumentua, atalean bertan deskargatzeko modukoa).

- 2023-2024an kirola eta desgaitasuna helburu zuten dirulaguntzen azalpen zehatza eta horietako bakoitzean informazio gehiago jasotzeko esteka. 3 dirulaguntza mota daude:

Horregatik, "kirola eta desgaitasuna" atala Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren webgunearen egitura-elementu bat da, eta diseinu eta antolaketa bat du, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren bidez kirolera eta desgaitasunera sartzeko aukera ematen duen edukia argi eta nabarmena zehazten duena. Atal hori eta gainerako webgunea gazteleraz ikus daiteke esteka honetan: <https://www.deportenavarra.es/es/deporte-y-discapacidad>; eta euskaraz hemen: <https://www.deportenavarra.es/eu/kirola-eta-desgaitasuna>.

Ataleko informazioa "KONTSULTARAKO ETA INTERESERAKO MATERIALA" izeneko epigrafe batekin osatzen da. Epigrafe horrek hiru dokumentu ditu, pdf formatuan deskarga daitezkeenak. Dokumentu hauek gida garrantzitsua dira kirolari eta desgaitasunari buruzko informazioa sortu nahi duten elkarte edo pertsona guztientzat:

- Kirolean desgaitasunari buruzko hizkera inklusiboa. (Espainiako Batzorde Paralinpikoa).

- Guztiontzako informazioa (Europe inklusioa)

- Desgaitasuna duten pertsonen kirolari buruzko Liburu Zuria Espainian (Desgaitasuna duten pertsonen ordezkarien Espainiako Batzordea)

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 4an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-24/PES-00534. Galdera, Nafarroako Gobernua REFENara eraman zitezkeen kirolei buruzko azterlan bat egitera premiatzen duen mozioa betetzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak Nafarroako Gobernua REFENara eraman zitezkeen kirolei buruzko azterlan bat egitera premiatzen duen mozioa betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 17ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak 11-24/PES-00534 galdera idatzia egin du 24/MOC-00073 mozioaren inguruan. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo-ko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak 2024. urtean zehar lan egin du kirol jarduera garatu ahal izateko espazio baten bila dauden kirol jakin batzuei erantzuna ematen ahal die ten espazioak aurkitzeko, eta horixe egin da 2025. urtean zehar xakeko, mahai-teniseko eta padeleko federazioek nahiz badminton jarduerak espazio bat izan dezaten.

Halaber, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua 2025-2028 aldirako Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Plan Estrategikoa ari da garatzen, eta kirol azpiegituren apartatua analizatzen ari da bertan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 31n

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-24/PES-00535. Galdera, Irulegiko eskua jendaurrean modu iraunkorrean erakusteko lekuz aldatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Irulegiko eskua jendaurrean modu iraunkorrean erakusteko lekuz aldatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 17ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak 11-24/PES-00535 galdera idatzia egin du, jakiteko zertan den Irulegiko Eskuaren lekualdaketa. Hau da Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Irulegiko Eskua deritzon pieza arkeologikoa abenduaren 17tik Nafarroako museoko Historiaurrearen aretoan dago ikusgai. Beraz, eta PES 000535 galderari erantzuteko, jadanik egin da lekualdaketa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 31n

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo

